

**2003KO UZTAILAREN 9AN GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO
BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Bederatzia

HILABETEA: Uztaila

URTEA: Bi mila eta hiru

HASIERAKO ORDUA: Eguerdiko hamabiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Pello Garaialde Goikoetxea

Imanol Aranburu Gutierrez

Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga

ETORRI GABEA: Arantxa Aseginolaza Azkargorta

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA. Berritsu ludoteka eta Ezkiagako ludoteka zerbitzua kontratatzea.

Ezagutzera eman da, Euskara-batzordeak eta Kultura batzordeak, 2003ko ekainaren 27an elkarrekin egindako bileran hartutako proposamena, hain zuzen ere, BERRITSU LUDOTEKA eta EZKIAGAKO LUDOTEKA zerbitzua bi urterako esleitzeko deialdia egiteari eta lehiaketa arautuko duten Administrazio-baldintzak eta Baldintza Teknikoak onartzeari buruzkoa.

Gaia eztabaidatu ondoren bildutakoek aho batez onartu dute proposamena, adieraziz kontratua irauten duen bi urteetan zehar, zerbitzuaren segimendua eta balorazioa egin behar dela.

Horren ondorioz, erabaki hau hartu da:

“Lehenik-,” “Berritsu ludoteka” eta “Ezkiagako ludoteka” zerbitzua kontratatzeko deialdia egitea, lehiaketa arautuko duen baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onartuz.

1.- Xedea: “Berritsu ludoteka” eta “Ezkiagako ludoteka” zerbitzua kontratatzea.

2.- Prozedura: Lehiaketa

3.- Aurrekontua: 112.800 €.

4.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udaleko idazkaritzan.

5.- Behin behineko bermea: Lehiaketan parte hartzeko, Beasaingo Gordailuzaintzan 2.256 euroko behin-behineko bermetasuna aurkeztu beharko da.

6.-Behin betiko bermea: Adjudikaziodunak kontratua sinatu aurretik aurkeztu behar duen bermea esleipenaren aurrekontuko %4aren balioa duena izango da.

7.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egunetan.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Pliken irekitzea Beasaingo Udaletxean egingo da, proposamenak aurkezteko epea bete ostean laugarren egunean, eguerdiko 12,00etan, larunbata edo jaieguna ez bada behintzat. Kasu honetan plika irekitzea hurrengo lanegunera pasatuko da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera eguerdiko hamabiak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.